



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Pablo Gonzalez euskal kazetariak urteak daramatza lanean Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat komunikabiderentzat, Europan eta munduan gertatutako gatazka anitzen berri emanez.

2022ko otsailaren 28an, gaur urtebete, Polonian zela Ukrainako inbasioak eta gerrak eragindako ondorio latzen berri emateko, Poloniako zerbitzu sekretuek atxilotu zuten, atzerriko indar baten aldeko espioitza lanak egitea egotzita. Orduz geroztik behin-behinean atxiloturik dago, eta atzo bertan auzia aztertzen ari den epaitegi poloniarrek egoera bidegabe hori hiru hilabetez luzatzea erabaki zuen inolako azalpenik edo justifikaziorik eman gabe.

Hori dela eta,

1. Eusko Legebiltzarrak kezka adierazten du Pablo Gonzalez euskal kazetaria Poloniako agintarien aldetik pairatzen ari den egoera dela eta, behin-behineko atxiloaldia luzatzeak eta modu neurrigabea aplikatzeak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 47. artikulua urratzen baitu.
2. Eusko Legebiltzarra ez dator bat Poloniako epaitegiaren erabakiarekin, eta euskal erakunde eta instituzioei eta Estatuko Gobernuari eskatzen die agintari poloniarren aurrean Pablo Gonzalezen eskubideak errespetatu beharra aldarrikatu dezatela, eta behar diren gestioak egin ditzatela auziak berme guztiak izan ditzan, prozesuan zehar Gonzalezek pairatu dituen eskubide urraketak amaituta.
3. Eusko Legebiltzarrak adierazten du Pablo Gonzalezen atxiloketa eta espetxeratzea albiste txarra dela gizarte libre eta demokratiko batean oinarrizko bermea den prentsa eta informazio askatasunarentzat.

Gasteizen, 2023ko otsailaren 28an

El periodista vasco Pablo González lleva varios años desarrollando una intensa labor profesional trabajando para diferentes medios, tanto vascos como internacionales, e informando de múltiples realidades y conflictos a lo largo de Europa y del mundo.





Hoy se cumple un año desde que aquel 28 de febrero de 2022, cuando se encontraba en Polonia cubriendo y dando información sobre las terribles consecuencias de la invasión rusa y la guerra en Ucrania, fue detenido por los servicios secretos polacos bajo la grave acusación de hacer trabajos de espionaje para una fuerza extranjera. Desde entonces se encuentra en prisión preventiva y ayer mismo nuevamente el tribunal polaco encargado del caso decidió prorrogar tres meses más esta injusta situación sin dar explicaciones ni justificaciones.

Por ello:

1. El Parlamento Vasco muestra su preocupación ante la situación que el periodista vasco Pablo González está sufriendo por parte de las autoridades polacas con la prolongación y uso desproporcionado de la prisión provisional incumpliendo así lo establecido en el artículo 47 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.
2. El Parlamento Vasco no comparte la decisión del tribunal polaco e insta a instituciones y estamentos vascos, así como al Gobierno del Estado, a reivindicar ante las autoridades polacas que se respeten los derechos de Pablo González y a realizar las gestiones oportunas para que pueda disfrutar de un procedimiento con todas las garantías que ponga fin a las vulneraciones de derechos sufridas durante este proceso.
3. El Parlamento Vasco declara que la detención y encarcelamiento de Pablo González es una mala noticia para la libertad de prensa e información, la cual es una de las garantías básicas para una sociedad libre y democrática.

En Gasteiz, a 28 de febrero de 2023

